

## ARZELUZ TAR ANDER JAUNARI



Luzear ta luzeat  
anaiak dirudie  
zeru urdiñean  
zure barne giroak  
sortu eutzun izena  
parnaso mendian.

Izarrak ziran goian  
zeruen zuzendari  
babes urdiñean  
ta zuk argia maite  
gizonak askatzeko  
lur ederrenean.

Euskaldun sena dabil  
borborka mendietan  
udalen goizean;  
zuk argia nai zendun  
beti, bizi bizirik  
euzkoen izatean.

Erri bat zeunkan aurrez  
Odolez berezia  
dana maite miñez;  
ederrena bera zan  
lege danen artean  
buruz ta biotzez.

Euskal gizarte miñak  
dei egian arduraz  
gizonen barnera  
gogoz esan zeuntsan  
emen nator indartzen  
euzko bizikera.

Geroztik beti gogoz  
eskein zeuntsan bizia  
maitegarri ari ;  
izkuntz iaierik ba da  
emon zeuntsan biotza  
erri maiteari.

### BASERRIA

Euzko baserri aintzagarriak  
arizti ta intxaur artean  
zuri ta zabal agertzen dira  
gure lurraren gainean;  
etxe jagole txakur zuria  
beti, azkar gauelean,  
iturritxoa ura opaka  
egarri atsedenean.

Gure arbaso goragarriak  
sortu zituen kabiak  
mendi ta solo ta zelaian  
zeru izar irudiak;  
lurralde oro ederrez dauka  
basetxe apainduriak  
maite miñetan ikusten ditut  
baserri zoragarriak.

7 Bakar bakarrik zagoz zelaian  
orlegiz eder jantzirik  
zure leioan dago amama  
eguzkiz inguratirik;  
illobatxoak daukaz alboan  
alaitasunez beterik,  
zuek maiteok daroazue  
nire odola bizirik.

Giza biziak ez dau nai berez  
gorrotorik biotzean  
senar barria, alai, bizi da  
emazteagaz batean;  
etxeko andre zoragarria  
pozez laguntzen lanean  
maitasunezko bititza onak  
bakea sortzen etxean.

Euskal basetxe kristau sendian  
kurutzea da gidari  
Jesus maiteak golgota mendin  
emon euskun ezaugarri;  
lan ta otoia lurra landuaz  
batera doaz bidari  
baserri muga sinimentsuak  
ikutuz zerukoari.

PAULIN

PAULIN